

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2020ko APIRILAREN 28an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
(TELEMATIKOKI) EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2020ko apirilaren 28an, telematikoki, eguerdiko 13.35 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maialen Alonso Labandibar
 Vicente Garcia Momblona
 Jesus Maria Tejada Cantero
 Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
 Mireia Ruiz Delgado


BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Aitor Beistegui Fiallegas

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2020ko martxoaren 5ean egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 5 de marzo de 2020.**
 - **2020ko martxoaren 10ean egindako ez ohiko bilkura/ Sesión extraordinaria de fecha 10 de marzo de 2020.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2019ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada./Dación de cuenta de la liquidación correspondiente al ejercicio 2019.**
- 4. 2019/2020 Ikasturteko Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzen babesean, K.V. andreak eginiko diru-laguntza eskaera./Aprobación de la solicitud de ayuda económica realizada por K.V.para cursos de euskara, curso escolar 2019/2020.**
- 5. Tolosaldea Garantze-i 2020 urteko ekarpena onestea, hala bada/ Aprobación de la aportación económica a Tolosaldea Garatzen, correspondiente al ejercicio 2019.**
- 6. Larraulgo azpiegiturak hobetu eta lehengoratzeko memoria baloratua onestea./Aprobación de la memoria valorada para llevar a**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

cabo la actuación de recuperación y restauración de aéreas degradadas y mejora de las infraestructuras de Larraul.

7. Fakturak eta ordainketak/Pagos y facturas.

8. Beste batzuk/Otros.

9. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2020 urteko martxoaren 5eko Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren bertaratuek, aho batez onesten dute.
- ▣ 2020 urteko martxoaren 10eko Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren bertaratuek, aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 19/2020 tik 41/2020ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

2019KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

2020/21 DEKRETUA


Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2019-12-31n:	103.114,81
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2019-12-31n:	14.029,05



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aurrekontuko zordunak :	6.442,67	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	7.586,38	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		45.815,28
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	29.970,39	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	15.844,89	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		71.328,58
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		71.328,58


AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-30.285,97
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	83.477,07
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	53.191,10

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	12.354,36
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	35.910,34
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	48.264,70

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Laugarrena.-2020ko martxoaren 12ko dataz egindako Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioaren berri ematen da (espedientean jasota gelditzen dena).

LAUGARREN PUNTUA

2019/2020 IKASTURTEKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN BABESEAN, K.V. ANDREAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik K.V. andreak eginiko eskaera, non 2019/2020 ikasturtean Euskarako 4. hizkuntz eskakizuneko maila prestatu nahi duela, Donostiako Legazpi euskaltegian, kostu osoa 200,00 euro dira. Horregatik Larraulgo Udaletxeari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: K.V. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Donostiako Legazpi euskaltegian, burutzeko asmoa duen Euskarako 4. hizkuntz eskakizuneko maila lortzeko ikastaroa egiteko diru-laguntza ematea, ondorengoari baldintzaturik:

- Klaseak bakarrik diruz lagunduko dira.
- %85eko asistentzia justifikatu beharko du.

Baldintza hauek betetzen dituela frogatzeko, Larraulgo Udaletxean matrikularen ordainagiria eta egindako maila gainditu duela eta asistentzia ziurtagiria aurkeztu beharko du.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa ondoren zehazten den modura egitea:


- % 50: Matrikula ordaindu duenaren agiria aurkeztutakoan.
- %50: Ekainean, asistentzia ziurtagiria aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri K.V. andreak ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZENI 2020 URTEKO EKARPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2019ko abenduak 16ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2020 urterako Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 4.708 euro direlarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, apirilaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, 2020 urteko ekarpena onestea, guztia, 4.708 euro direlarik. Lehen ekarpena burutzea onesten da, hau da, 2.354 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 4.708 eurotako gastua onestea, ordainketak 2020ko udal aurrekontuetako 422.430.00.01 kontu sailaren kargura egingo direlarik.

SEIGARREN PUNTUA

LARRAULGO AZPIEGITURAK HOBETU ETA LEHENGORATZEKO MEMORIA BALORATUA ONESTEA

Ikusirik ingurumeneko eta obra hidraulikoetako departamentuak, Gauzazko diru-laguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia onartu zuela: Gipuzkoako Lurralde Historikoan degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektu eta jarduerarako.

Ikusirik, Larraulgo Udalak interesa duela aipaturiko diru-laguntza eskaera egiteko.


Ikusirik, aipaturiko diru-laguntza eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean ondorengoa dagoela “ Proiektua edo jarduera onartzeko udal akordioa, non diru-laguntza eskatzen duen inbertsioaren zenbateko osoa adieraziz egikaritze teknikoko proiektuarekin edo obren memoria balioetsiarekin bat eginez; halaber, adierazi beharko da onartzen duela lan horiek Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartzea.”

Ikusirik i-ingenia enpresak prestatu duela” Larraulgo azpiegiturak hobetu eta lehengoratzeko memoria baloratua”. Aipaturiko memoria baloratuaren arabera, proiektu honen inbertsio osoa 67.668,67 euro dira.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: i-ingenia enpresak idatziriko “Larraulgo azpiegiturak hobetu eta lehengoratzeko memoria baloratua” onestu.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Gipuzkoako Lurralde Historikoan degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektu eta jarduerarako diru-laguntzaren deialdira, Larraulgo azpiegiturak hobetu eta lehengoratzeko memoria baloratua” aurkeztuko da, diru-laguntza eskatuko den inbertsio osoa 67.338,67 euro izango da, bat egiten duelarik obren memoria balioetsiarekin.


HIRUGARRENA: Larraulgo Udalak onartzen du, Larraulgo azpiegiturak hobetu eta lehengoratzeko memoria baloratuak suposatzen duen lanak Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

ZU ETA BIOK	629,91
ZU ETA BIOK	139,98
CORREOS	27,52
BERRI LANTEGIA	934,98
AUTOCARES AIZPURUA	311,00
MIRARI MARTIARENA	450,00
FUNDIBIDE	434,73
FUNDIBIDE	145,20
SETALDE	450,59
AMAZON	180,97
I-INGENIA	2.662,00
BERRI LANTEGIA	31,31
GIPUZKOAKO URAK	3.968,44
GIPUZKOAKO URAK	4.379,73
IZFE	2.043,15
IBERDROLA	84,37
IBERDROLA	193,70
TOLOMENDI	586,90
DIONISIO ORMAZABAL	197,87
ASCENSORES ULAHI	404,89
OSCAR GALINDO	363,00
JUANTXO GARMENDIA	145,20
FERRETERIA BARBE	114,09
LASURTEGUI	217,80
ZU ETA BIOK	629,91



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZU ETA BIOK	139,98
DISTRIBUCIONES LOPETEGUI	178,41
EBA ERKIZIA	1.555,58
IBERDROLA	136,68
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	852,98
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	13,72
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	852,98
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	45,71
IBERDROLA	167,78
GRENKA RENTING	129,41
TELEFONICA	97,41
TELEFONICA	182,75
TELEFONICA	2,61
TELEFONICA	10,86

Tokiko Gobernu batzordeak, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **24.094,10** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 14:00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.